

OHAR GARRANTZITSUA

DBD-ren 23. edizio honetan, gure antolakuntzarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik eta joan de urritik data erreserbatu izan arren, gure ibilbide eta ordutegiek bat egingo dute Bidasoa Itzulia txirrindularitza probarekin. Bidasoa Itzuliak beti bere froga arratsaldean egiten zuen eta aurten goizean egitea erabaki du.

Parte hartzaile guztiei barkamenak eskatu nahi dizkizuegu gerta litezkeen gorabeherengatik eta espero dugu beste urtebetez DBD martxa zikloturismo-jardunaldi ederra izatea.

Arazo asko eduki ditugu martxa antolatze eta aurrera ateratzeko zailtasunak gainditu eta beharrezko baimenak lortzeko eta Ertzaintzaren Gipuzkoako Trafikoko Lurralde Unitateko Buruak ordutegi-baldintza zorrotzak ezarri dizkigu gure martxa egiteko. Hona hemen baldintza horiek:

- 8:00etan irten ondoren, Frantziarako bidean, parte hartzaile guztiek Santiago Zubitik igaro beharko dute goizeko 9:30-ak baino lehen, Hendaiatik emango den Bidasoa Itzuliaren irteerak trafikoaren etenak (lasterketa pasa arte) eragin ez diezaien.
- Frantziatik itzultzean, printzipioz ez dago arazorik, soilik goizeko 10:30-ak baino lehen Santiago Zubira sartzen diren parte-hartzaileentzat.
- Santiago Zubira goizeko 10:30-ak baino lehen iristen diren parte hartzaile guztiek, gelditu egin beharko dute, eta erakundearen ibilgailuaren ondoan errepidea berriro ireki arte itxaron beharko dute, harik eta trafikoko agenteek igarotzeko aukera ematen duten arte. Horregatik, proba ahal den neurrian errazteko eta puntu horretan itxaronaldiak saihesteko, ibilbide laburra egiten duten parte-hartzaileei gomendatzen diegu FICOPA-ra 10:30-ak baino lehen iristeko moduko abiadura neurritsua eramatea edo trazadura luzeagoa egitea.

Era berean, parte hartzen duten guztiei berretsi nahi diegu trafikoari irekitako bizikleta-martxa dela, eta une oro errespetatu behar direla bide-segurtasuneko arauak eta agintarien eta erakundearen beraren jarraibideak.

Gorabehera hau izanik ere, espero dugu proba normaltasun osoz egingo dela eta zikloturismo egun bikain bat bizi ahal izango dugula.

Eskerrik asko zuen ulermen eta laguntzagatik!

**EZ AHAZTU
ARAUDIA BETETZEN!**



**BIDEGURUTZE
KONTROL
PUNTUA**



IBILBIDE LUZE ETA ERDIKO BIDEGURUTZEA. (Km 47)
Ibilbide luzea eta motza bereizten dituen bidegurutzera goizeko 11:45h-ak baino lehen iristen ez diren parte-hartzaileak, ibilbide motza burutu beharko dute derrigorrez.